

DONOSTIAKO UDALA

2017

Aurrekontuak - 4. alea

Udaleko elkarteak



**Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián**

Programakuntza, azterlanak eta aurrekontuak
Programación, estudios y presupuestos

Índice

1. Donostiako Sustapena, S.A.	6
2. Balneario de la Perla del Océano Sozietatea, S.L.	11
3. Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa	15
3.1. Negozio zifraren zenbateko garbia.	17
3.2. Pertsonalaren gastuak.	17
3.3. Beste ustiapen gastu batzuk	18
3.4. Higiezinaren amortizazioa	18
3.5. Ibilgetu ez finantzarioaren diru laguntzen eta beste batzuen egozpena	19
3.6. Besterentzeen eta beste eragiketa batzuen ondoriozko emaitza	19
3.7. Diru sarrera finantzarioak	19
3.8. Gastu finantzarioak	19
4. Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A.	24
5. Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoa	29
5.1. Kultur Ekintza: Olatu Talka	30
5.2. Udal-liburutegi zerbitzua	30
5.3. Festak	31
5.4. Diru laguntzak	31
5.4.1. Jaialdietarako	31
5.4.2. Elizbarrutiko Museoa	31
5.5. San Telmo Museoa	31
5.6. Programazio iraunkorra: zinea	32
5.7. Programazio iraunkorra: musika, antzerkia eta dantza	32

5.8. 52. Heineken Jazzaldia	33
5.9. DK Lab	33
5.10. Pertsonak eta baliabideak	33
5.11. Ticketing sistema berria	33
5. 12. Komunikazio eta irudia	34
5.13. Inbertsioak	34
6. Anoeta Kiroldgia, S.A.	38
7. Donostiako Tranbia Konpainia, S.A.	43
7.1. Zerbitzua, kalitatea eta bezeroaren arreta hobetzea.	43
7.2. Ingurumena: autobus ekologikoak eta irisgarriak	43
7.3. Tarifa sistema	44
7.4. Langileria eta antolaketa.	44
7.5. Berrikuntza	46
7.6. Komunikazio eta benchmarking ekintzak egingo ditu.	47
8. Donostia Turismo, S.A.	52
8.1. Eginkizuna	52
8.2. Ikuspegia	52
8.3. Aupada estrategikoak	52
8.4. Jardun plana	53
8.4.1. Aisia turismoaren kudeaketa	53
8.4.2. Negozio turismoaren kudeaketa	54
8.4.3. Helmugaren kudeaketa turistikoa	55
8.4.4. Zuzendaritza plana	56
8.4.5. Pertsonen kudeaketa	57

Taulen aurkibidea

1. taula: Donostiako Sustapenaren programa osagaiak	7
2. taula: Donostiako Sustapenaren diru-sarrerren ekonomi balioztapena	8
3. taula: Donostiako Sustapenaren gastuen ekonomi balioztapena	8
4. taula: Donostiako Sustapena. Orokorra. Gastuen azalpena	9
5. taula: Donostiako Sustapena. Orokorra. Diru-sarrerren azalpena	10
6. taula: Balneario de la Perla del Océano Sozietatearen programa osagaiak	11
7. taula: Balneario de la Perla del Océano Sozietatearen diru-sarrerren ekonomi balioztapena	12
8. taula: Balneario de la Perla del Océano Sozietatearen gastuen ekonomi balioztapena	12
9. taula: Balneario de la Perla del Océano Sozietatea. Orokorra. Gastuen azalpena	13
10. taula: Balneario de la Perla del Océano Sozietatea. Orokorra. Diru-sarrerren azalpena	14
11. taula: Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren programa osagaiak	20
12. taula: Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren diru-sarrerren ekonomi balioztapena	21
13. taula: Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren gastuen ekonomi balioztapena	21
14. taula: Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren. Orokorra. Gastuen azalpena	22
15. taula: Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren. Orokorra. Diru-sarrerren azalpena	23
16. taula: Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A.aren programa osagaiak	25
17. taula: Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A.aren diru-sarrerren ekonomi balioztapena	26
18. taula: Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A.aren gastuen ekonomi balioztapena	26
19. taula: Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A. Orokorra. Gastuen azalpena	27
20. taula: Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A. Orokorra. Diru-sarrerren azalpena	28
21. taula: Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoaren programa osagaiak	34
22. taula: Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoaren diru-sarrerren ekonomi balioztapena	35
23. taula: Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoaren gastuen ekonomi balioztapena	35
24. taula: Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoa. Orokorra. Gastuen azalpena	36

25. taula: Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoa. Orokorra. Diru-sarrerren azalpena	37
26. taula: Anoeta Kiroldegia, S.A.aren programa osagaiak	39
27. taula: Anoeta Kiroldegia, S.A.aren diru-sarrerren ekonomi balioztapena	40
28. taula: Anoeta Kiroldegia, S.A.aren gastuen ekonomi balioztapena	40
29. taula: Anoeta Kiroldegia, S.A. Orokorra. Gastuen azalpena	41
30. taula: Anoeta Kiroldegia, S.A. Orokorra. Diru-sarrerren azalpena	42
31. taula: Donostiako Tranbia Konpainia, S.A.aren programa osagaiak	48
32. taula: Donostiako Tranbia Konpainia, S.A.aren diru-sarrerren ekonomi balioztapena	49
33. taula: Donostiako Tranbia Konpainia, S.A.aren gastuen ekonomi balioztapena	49
34. taula: Donostiako Tranbia Konpainia, S.A. Orokorra. Gastuen azalpena	50
35. taula: Donostiako Tranbia Konpainia, S.A. Orokorra. Diru-sarrerren azalpena	51
36. taula: Donostia Turismo, S.A.aren programa osagaiak	57
37. taula: Donostia Turismo, S.A.aren diru-sarrerren ekonomi balioztapena	58
38. taula: Donostia Turismo, S.A.aren gastuen ekonomi balioztapena	58
39. taula: Donostia Turismo, S.A. Orokorra. Gastuen azalpena	59
40. taula: Donostia Turismo, S.A. Orokorra. Diru-sarrerren azalpena	60

1. Donostiako Sustapena, S.A.

2017rako aurrekontu-aurreikuspenak langabezia-tasaren jaitsieraren datuekin bat datoz, zeinak, krisi-egoeraren aurreko ratioetan kokatzen diren, eta, baita, azken urteotan hiriko BPGdak izan duen bilakaera positiboarekin ere. Horrek aukera ematen digu egiturazko arazoak jorraztera bideratutako bideari berriro ekiteko, aurreko ekitaldietan hainbat neurritan islatu direnak eta 2017rako Sustapena sozietatearen politikaren ardatz nagusi bihurtuko direnak. Eta, noski, horrek aurrekontuetan bere isla izango du.

Beraz, berrikuntzak, talentuak eta hiri adimentsuak 2017rako proiektu hau ardaztuko duen trilogia osatuko dute. Donostia merkatu lehiakor eta globalizatu batean haztea ahalbidetzen digun berrikuntzaren tokiko ekosistema aberats eta askotarikoan sostengatzen da. Ekitaldi honetarako aurreikusten diren programa ugariak berrikuntza hori sustatzera, suspertzera, laguntzera eta monetizatzen bideratzen dira, etengabeko berrikuntzako eta hazkunde sozioekonomikoko eredu iraunkorra erdiesteko.

Gure berritzeko gaitasuna sostengatzen duen giza kapitala ekonomia donostiarrean datozen urteetarako erronka ikaragarri gisa eraikitzen da. Horrek neurri-sorta zabaltzea eta talentua sustatzeko, erakartzeko, hari eusteko eta hura itzultzeko estrategia finkatzea dakar. Etorkizuneko apustu hori Donostiako gazteengan ardazten da, hiriak ekintzaile, ikertzaile eta inbertsiogile atzeritarrak erakartzeko izan dezakeen gaitasuna ahaztu gabe.

Smart city-ek edo hiri adimentsuek aukera ekonomiko handiagoak eskaintzea eta hiritarren bizi-kalitatea hobetzea xede duten azpiegitura teknologikoez eta zerbitzu aurreratuez horniturik dagoen hiriaren kontzeptua dakarkigute. Sustapenak, hirien marketin zabaldua alde batera utzita, alor horretan hainbat ekimen sustatu ditu, horietako batzuk Europar Batasunak berak berretsiaz. Beraz, hiritarren, eragile ekonomikoen, unibertsitarioen, ikerketa-alorrekoen... interes eta behar desberdinak bateratzen dituen eredu propio bat edukitzeak proiektuak inspiratu ditu, horien artean, esaterako, “smart kalea” proiektua, egun, Altza auzora eraman dena, edo Amararen hasierako birmoldaketa bera. Bestalde, Txomineko urbanizazio berriak, auzo-mailan, hiriko espazio berri horretarako smart politiketek ekar ditzaketan onuren ikuspegi integralari erantzun nahi dio. Horko proiektu ugarien artean ez dugu baztertu behar District Heating edo bero iraunkorraren sarearen proiektua, diseinu-fasean energia tradizionalen eta beste alternatiboan eta ingurumen-

ikuspegitik iraunkorrak diren artean izandako eztabaida logikoak gaitu ondoren, aurrera darraielako aurrekontu hauetan zuzkidura ekonomiko handia izanik.

Aurrekontuetako lehentasun horiek ez dute ezkututzen Sustapenak hiriko kluster desberdinekin sektorialki berriro egingo duen ahalegina eta, horrek, jarduera-multzo zabala ekarriko du. Horien artean, besteak beste, nazioarte-mailan tokiko enpresen presentzia gehitzera bideratutakoak azpimarratu nahiko genituzke, bertako produktuen merkaturatzea bultzatuz “made in San Sebastián” lelopean; edota, nazioarteko merkaturatze tokiko enpresen kokapena hobetuko duten gure hiriko proiektu pilotuak.

Halaber, zeregin sozialak eta berdintasun-printzipioek inspiratuko dute Sustapenaren 2017ko aurrekontuaren zati bat. Jarduera hori gizartean egoera zaugarrian dauden taldeak eta iraupen luzeko langabetuak kontratatze laguntza-ildoek, emakumeari lan-merkatuan sartzen laguntzera bideratutako diskriminazio positiboko hainbat neurri edo enpresa-ekimen berriak sustatzera bideratutako neurriek osatzen dute.

Aurrekontu-proiektuaren oreka horretan, udalak egindako ekarpen garrantzitsuak gain, baditugu sozietatearen aktibo higiezinaren ustiaketa iturburu duten diru-sarrerak ere; azpimarratzekoak baita Eusko Jaurlaritzatik eta Europar Batasunetik datozen diru-laguntzak ere. Aipaturiko aktibo horiei dagokienez, ezin digu ahaztu enpresa-guneek, Talent House egoitzak eta abarrek tokiko enpresaren dinamismoan eta ikertzaileak edo talentua erakartzen betetzen duten funtzioa eta hiriko eragile desberdinekin Europako funtsak bideratzerakoan eta hiri-proiektuak batera garatzerakoan hain hedatua dagoen lankidetzaren.

Horretarako, 2017ko aurrekontuan 13.500.000 eurotik gorako baliabideak sartu dira, eta Udalaren ekarpena 5.526.134 eurokoa izango da.

1. taula: Donostiako Sustapenaren programa osagaiak

Programa osagaiak	Zenbatekoa	%
Donostiako Sustapena	13.539.990,83	100,00
Guztira	13.539.990,83	100,00



2. taula: Donostiako Sustapenaren diru-sarrerren ekonomi balioztapena

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Zuzeneko zergak	0,00	0,00
2	Zeharkako zergak	0,00	0,00
3	Tasak eta bestelako zergak	1.619.167,68	11,96
4	Transferentzia arruntak	7.996.512,65	59,06
5	Ondare-sarrerak	2.935.310,50	21,68
6	Inbertsio errealeen besterenganaketa	0,00	0,00
7	Kapital-transferentziak	989.000,00	7,30
8	Finantza-aktiboak	0,00	0,00
9	Finantza-pasiboak	0,00	0,00
Guztira		13.539.990,83	100,00

3. taula: Donostiako Sustapenaren gastuen ekonomi balioztapena

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal-gastuak	2.475.913,84	18,29
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	5.690.277,73	42,03
3	Finantza-gastuak	5.000,00	0,04
4	Transferentzia arruntak	3.823.300,00	28,24
6	Inbertsio errealak	989.000,00	7,30
7	Kapital-transferentziak	0,00	0,00
8	Finantza-aktiboak	0,00	0,00
9	Finantza-pasiboak	556.499,26	4,11
Guztira		13.539.990,83	100,00



4. taula: Donostiako Sustapena. Orokorra. Gastuen azalpena

Kontusaila	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
1. kapitulua		
130.01	Langileen ordainsariak	1.879.343,70
160.01	Gizarte-aseguruak	534.946,06
160.04	Elkarkidetzak	36.382,08
162.01	Langileen prestakuntza	17.375,00
161.01	Beste hainbat gizarte-laguntzak	7.867,00
	1. kapituluaren guztizkoa	2.475.913,84
2. kapitulua		
227.15	Profesional kontratazioa eta ohiko zerbitzuak	1.904.109,73
227.17	Ez-ohiko azterketa teknikoak	967.743,00
226.14	Gainontzekoentzat kurtsuak	142.964,00
201.01	Alokairuak, mantenimendua eta hornidurak	1.941.384,87
224.01	Aseguruak	20.813,00
226.03	Argitalpenak, komunikazioa eta ordezkariak gastuak	36.120,00
222.99	Komunikazioak	53.252,48
226.05	Bidaiak, ostatu gastuak eta dietak	72.142,63
226.06	Lanaldietan eta beste gertakizunetan antolakuntza eta parte hartzea	403.364,19
226.99	Beste hainbat gastu txiki	34.358,83
225.01	Tributuak	114.025,00
	2. kapituluaren guztizkoa	5.690.277,73
3. kapitulua		
369.01	Interesak	5.000,00
	3. kapituluaren guztizkoa	5.000,00
4. kapitulua		
481.01	Sariak, diru-laguntzak eta beka	3.823.300,00
	4. kapituluaren guztizkoa	3.823.300,00
6. kapitulua		
6	District Heating inbertsioa	700.000,00
6	Democenterreko estalkia	139.000,00
	Urban Lur	150.000,00
	6. kapituluaren guztizkoa	989.000,00
9. kapitulua		
932.02	Zorren amortizazioak	556.499,26
	9. kapituluaren guztizkoa	556.499,26
Guztira		13.539.990,83

5. taula: Donostiako Sustapena. Orokorra. Diru-sarreraren azalpena

Kontusaila	Diru-sarreraren azalpena	Zenbatekoa
3. kapitulua		
I 310.99	Zerbitzuak ematea	1.273.819,92
I 390.02	Bezeroei eragindako gastuen sarrerak	345.347,76
3. kapituluaren guztizkoa		1.619.167,68
4. kapitulua		
I 430.01	Donostiako Udalak emandako diru-ekarpina (gastu arrunta)	5.586.133,65
I 400.01	Estatuko ekarpina	8.000,00
I 410.01	Eusko Jaurlaritzaren diru-ekarpina	1.204.000,00
I 416.01	Foru Aldundiaren diru-ekarpina	80.000,00
I 493.01	Europa Batasunaren diru-ekarpina	918.379,00
	Bestelako diru-laguntzak	200.000,00
4. kapituluaren guztizkoa		7.996.512,65
5. kapitulua		
I 540.01	Alokairugatik sarrerak	1.835.110,50
I 540.02	Hotelen kanona	1.100.000,00
I 560.01	Kontu korronteko interesak	200,00
5. kapituluaren guztizkoa		2.935.310,50
7. kapitulua		
730.01	Donostiako Udalak emandako diru-ekarpina (kapital-gastua ULO)	989.000,00
7. kapituluaren guztizkoa		989.000,00
Guztira		13.539.990,83

2. Balneario de la Perla del Océano Sozietatea, S.L.

2017an Sozietateak aurreko urtetako ekintzekin jarraituko du, bere aurrekontua mantenduz. Sarreraren aldetik, bakarrik bere ondarearen alokairuak kudeatuz hornitzen da eta gastuetan aldiz, ondarearen mantenua, administrazio eta finantza gastuak ditu.

6. taula: Balneario de la Perla del Océano Sozietatearen programa osagaiak

Programa osagaiak	Zenbatekoa	%
Balneario de la Perla del Océano Sozietatea	615.557,00	100,00
Guztira	615.557,00	100,00



7. taula: Balneario de la Perla del Océano Sozietatearen diru-sarrerren ekonomi balioztapena

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Zuzeneko zergak	0,00	0,00
2	Zeharkako zergak	0,00	0,00
3	Tasak eta bestelako zergak	30.000,00	4,87
4	Transferentzia arruntak	0,00	0,00
5	Ondare-sarrerak	585.557,00	95,13
6	Inbertsio errealeen besterenganaketa	0,00	0,00
7	Kapital-transferentziak	0,00	0,00
8	Finantza-aktiboak	0,00	0,00
9	Finantza-pasiboak	0,00	0,00
Guztira		615.557,00	100,00

8. taula: Balneario de la Perla del Océano Sozietatearen gastuen ekonomi balioztapena

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal-gastuak	0,00	0,00
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	476.044,00	77,34
3	Finantza-gastuak	0,00	0,00
4	Transferentzia arruntak	0,00	0,00
6	Inbertsio errealak	0,00	0,00
7	Kapital-transferentziak	0,00	0,00
8	Finantza-aktiboak	127.493,00	20,71
9	Finantza-pasiboak	12.020,00	1,95
Guztira		615.557,00	100,00



9. taula: Balneario de la Perla del Océano Sozietatea. Orokorra. Gastuen azalpena

Kontusaila	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
2. kapitulua		
227.99	Kanpoko zerbitzuak	330.420,00
225.01	Zergak	145.624,00
	2. kapituluaren guztizkoa	476.044,00
8. kapitulua		
880.01	Defizit edo superabitaren ondorioz aurrekontua orekatzeko eragiketak	127.493,00
	8. kapituluaren guztizkoa	127.493,00
9. kapitulua		
932.02	Epe luzerako maileguren itzulpena	12.020,00
	9. kapituluaren guztizkoa	12.020,00
Guztira		615.557,00

10. taula: Balneario de la Perla del Océano Sozietatea. Orokorra. Diru-sarrerren azalpena

Kontusaila	Diru-sarrerren azalpena	Zenbatekoa
3. kapitulua		
I 390.02	Bezeroei eragindako gastuen sarrerak	30.000,00
	3. kapituluaren guztizkoa	30.000,00
5. kapitulua		
I 540.01	Alokairugatik sarrerak	585.557,00
	5. kapituluaren guztizkoa	585.557,00
Guztira		615.557,00

3. Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa

1. Oharra: Erakundearen 2017ko aurrekontuen baitan sartzen diren dokumentuak

Entidad Pública Empresarial de Vivienda – Donostiako Etxegintzak (aurrerantzean, “Erakundea”)

2017rako prestatu duen aurrekontuak honako dokumentu hauek hartzen ditu bere baitan:

- Galera eta irabazien aurreikuspen kontua.
- Aurreikuspen balantzea.
- Ondare Garbiaren aldaketen aurreikuspen egoera.
- Memoria, jarduera arrunten finantzaketaren defizita erakusten duen egoerarekin.
- Transferentzia eta diru-laguntza eta kapital arrunten gaineko eranskina.
- Zorpetzearen gaineko eranskina.
- Langileen gaineko eranskina.
- 2017-2020 laurtekoan egingo diren inbertsioen eta haien finantzaketaren gaineko eranskina.

2. Oharra: 2017-2020 laurtekoan Erakundeak egingo dituen inbertsioak eta finantzaketa.

2017rako aurrekontuan 2017-2020 laurtekorako Jarduera, Inbertsio eta Finantzaketan Plan bat sartzen da (JIFP), non erakitzen ari diren sustapenei eta aurreikusten diren sustapen berriei buruzko inbertsioak eta dagozkien finantzaketak hartzen dituen bere baitan.

Printzipioz, Eusko Jaurlaritzaren laguntza finantzarioekin lotutako legeetan ez da espero aldaketarik, eta, beraz, jasoko diren diru-laguntzen zenbatekoetan ere ez.

Administrazio Kontseiluak onartu beharreko ordainketa eta inbertsio-konpromezuen urtez-urteko zenbatekoak hauek dira:

2017	12.420.370,00 €
2018	14.794.480,00 €
2019	10.350.000,00 €
2020	0,00 €
GUZTIRA	37.564.850,00 €

Erakundeak jarraitu duen finantzaketa politikari eutsita, beharrezkoa izango litzateke Donostiako Udalari 19.814.850,00 euroren abalak eskatzea, ondoren dagozkion maileguak gauzatzeko hurrengo xehatzearen arabera:

- » 162 alokairuko BOE Txomin-Enean (1. A fasea), 9.525.600,00 €-an.

- » 37 alokairuko BOE Jolastokietan, 2.599.250,00 €-an
- » 55 bizitoki Ulian, 5.250.000,00 €-an
- » Energia efizienteen hobekuntza alokairuko udalaren BPEtan, 1.800.000,00 €-an.
- » Irisgarritasunaren hobekuntza alokairuko udalaren BPEtan, 640.000,00 €-an

Pertsona nagusientzat Intxaurrondon egingo diren 55 bizitokiek eta Berio-Goyenechen (Etxegi) egingo diren 48 BOEk finantzatzeko maileguek badute jada Udalaren abala. Etxegirentzat izendatutako mailegua bere osotasunean erabili da eta Intxaurrondorako 2.750.000,00 euro daude erabiltzeko.

2017-2020 laurtekoan Eusko Jaurlaritzatik jasoko diren diru-laguntzen zenbateko osoa 14.000.000,00 euro dira.

3. Oharra: 2017ko jarduera arruntei dagozkien diru-sarrerak eta gastuak

Erakundearen inbertsio jarduera guztia babes publikoko etxebizitza eraikinak sustatzera bideratuta dago, ondoren babespeko alokairuan jartzeko.

2017ko ekitaldian Erakundeak honako higiezinak kudeatuko ditu alokairuan: 1.289 BOE, gazteentzako 283 bizitoki, nagusientzako 44 apartamentu eta 330 garaje. Eta aurrekoek gain, nagusientzako 197 apartamentu, logela eskubidearen erregimenean kudeatzen direnak, eta Erakundearen Alokabide programaren bitartez kudeatzen diren 345 etxebizitza ere sartzen dira higiezinaren parke horretan.

Bestalde, 2011ko apirilaren 29an Udalbatza Osoak egindako ohiko bilkuran erabaki zen ordura arte PARVISAREN esku egondako hiriaren birgaitzerako eta eraberritzaerako jarduerak Erakundeak bere gain hartzea. Bileran horretan, halaber, PARVISA erakundea desegitea eta Erakundeak haren eskubide eta betebeharrak guztiak bere gain hartzea erabaki zen.

Horregatik, Erakundeak, Donostian birgaitze integraturako gunetzat eta gunen degradatutzat aitortuta dauden aldeetarako Eusko Jaurlaritzak ematen dituen laguntzak izapidetzeaz gain, Donostiako udal mugarte osoko egoitza eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko Udalak dagokion Ordenantzaren bitartez emango dituen diru-laguntzak ematea kudeatzeaz ere arduratuko da. 2017an emango diren diru-laguntzen gehienezko zenbatekoak Donostiako Udalaren aurrekontuko dagokion partidan agertuko dira.

Bukatzeko, Udalbatza Osoak 2015eko uztailaren 30ean hartutako erabakiz, Donostiako Hirigintza Kudeatzeko Udal Lantegia ordura arte garatzen ari zen jarduerak kudeatzeko modua aldatzea onartu zen, jarduera horien ardura Erakundeak bere gain hartu duelarik.

Kudeaketa horrek guztiak, sustapenarekin batera, gastuak eta diru-sarrerak eragiten dituzte, eta horiek Erakundearen galera eta irabazien aurreikuspen kontua osatzen dute.

3.1. Negozio zifraren zenbateko garbia.

Erakundearen jarduera nagusia Higiezinaren alokairua da, eta behin eta berriz merkatuko diru-sarrerak eragiten dituena.

Alokairuen prezioak, batez beste, hauek dira: 290 euro BOEtarako, 243 euro apartamentuetarako, eta 62 euro (BEZa sartu gabe) garajeetarako.

Errenta sozialez gain, kontuan hartu da maizterren txandakatzek higiezinak hutsik izatera behartzen duela gutxi gorabehera denbora tarte luze batean berriro etxea bete arte, zeinak denbora tarte horietan errentarik ez kobratzea ekartzen duen, baita gutxieneko kontsumoak ordaindu beharra ere. Txandakatzek horiek, batez beste %3 izatea balioesten da BOEtarako eta %5 zuzkidurako bizitokietarako, aurreko urteko ratioak pixka bat hobetuz.

2017an alokairu errentak ez dira handituko, 2016rako inflazioa ia nulua izatea kalkulatzeko baita.

Horrek denak 2017rako aurreikusten diren alokairuen diru-sarrerak 5.317.000,00 eurokoak izatea egiten du.

Atal honetan, halaber, OHZren bidez berreskuratzea espero diren zenbatekoak jasotzen dira, bai eta errentariei edo errentarien komunitateei egokitu arren, Erakundeak ordaintzen dituen beste gastuak ere. 2017an 544.000 euro jasotzea espero da lehen kasuan, eta 952.000 euro bigarrenean.

3.2. Pertsonalaren gastuak.

Donostiako Hirigintza Kudeatzeko Udal Lantegia xurgatu ostean, Erakundeak izango dituen lanpostuak 22 izatetik 25 izatera pasa dira.

Aurrekoa kontutan hartuta, 2017rako aurreikusten diren ordainsari gordinek 1.068.965,22 euro osatzen dituzte, eta karga sozialen kontu sailak guztira 328.098,12 euro egiten ditu, bere baitan honako kontzeptu hauek hartzen dituelarik::

Enpresaren konturako gizarte aseguratza	286.098,12 €
Elkarkidetza	17.000,00 €
Gizarte ekintza	14.000,00 €
Bizitza eta istripuetarako aseguru kolektiboa	3.250,00 €
Prestakuntza gastuak	1.000,00 €
Lan arriskuen prebentzioa	6.750,00 €

3.3. Beste ustiapen gastu batzuk

Babes ofizialeko etxebizitza parkeari eustea eta berankortasuna dira zerbitzu publiko hau ematean arreta berezia eskatzen duten bi gai nagusiak.

Kanpoko zerbitzuen epigrafearen barruan aurreikusitako gasturik adierazgarrienak hauek dira::

Konponketak eta zaintze lanak	1.038.536,90 €
Hornidurak	689.000,00 €
Garbiketak	164.000,00 €
Aseguru primak	150.000,00 €
Zerbitzu profesional independenteak	140.000,00 €
Komunitateen gastuak	49.000,00 €

Zergen kontu sailaren barruan, ondasun higiezinaren gaineko zerga da nabarmenena, 491.200,00 euroko zenbatekoarekin. Gainerakoak hainbat tasa hartzen ditu.

Eragiketa komertzialengatik horniduretan urtebete baino gehiagoko berankortasun saldoak sartzen dira, hau da, 2017ko urtarrilaren 1a baino lehenago igorri eta oraindik kobratu ez diren ordainagiriak. 2017erako ordainagiriaren %6 ordaindu gabe geratuko dela aurreikusten da.

3.4. Higiezinaren amortizazioa

Erakundearen ia ibilgetu osoa higiezinaren inbertsioak dira, eta horiek irizpide lineal bati jarraituta amortizatu behar dira bere bizitza baliagarri osoan zehar.

Kontuan izanik 2017an alokatzeko moduan egongo diren ia promozio guztiak eta PARVISAK utzitako ibilgetu osoa, amortizazioetarako zuzkidurek 2.720.000,00 euro egiten dituzte guztira

3.5. Ibilgetu ez finantzarioaren diru laguntzen eta beste batzuen egozpena

Erakundeak Eusko Jaurlaritzatik diru-laguntzak jasotzen ditu, itzuli beharrik gabe, denbora tarte jakin batean babespeko alokairuan jarri behar diren babes ofizialeko etxebizitzaren sustapenerako. Diru-laguntza horiek galera eta irabazien kontuari egotziko zaizkio, alokairuan jarritako higiezinatarako kalkulaturako bizitza baliagarriaren denboraren arabera, hau da, 50 urtean. Hala, 2017rako aurreikuspen kontuan diru-sarrera moduan egotzi beharreko zenbatekoa 765.000,00 euro dira.

Bestalde, Udalak desegin den PARVISA erakundeari ibilgetua erosteko emandako 73.000,00 euroren diru-laguntza urtero jasotzen da.

3.6. Besterentzeen eta beste eragiketa batzuen ondoriozko emaitza

Atal honetan aurreko ekitaldietan salgai zeuden babes ofizialeko etxebizitza eta lokalen azalera eskubideen lagapenagatik kobratutako kanonak jasotzen dira, 149.000,00 euroren zenbatekoarekin, aurreikuspen kontuari diru-lagapenak irauten duten urte kopuruaren arabera sarrera moduan egozten direnak.

3.7. Diru sarrera finantzarioak

Eusko Jaurlaritzak diruz laguntzen dituen interesen zatia jasotzen du, zeinak alokairuko etxeen sustapena finantzatzeko diren mailegu kualifikatuen interesari dakozkien. 2017ko aurrekonturako aurreikusita dago diruz laguntzen diren interes horien zenbatekoa 744.304,99 euro izango direla.

3.8. Gastu finantzarioak

Kreditu erakundeekin izaten diren epe luzerako zorrek sortarazten dituzten interesak jasotzen dira 1.243.407,85 euroko balioarekin.

Logela eskubidea dutenekiko zorrek ez dute interesik sortarazten, inflazioa nulua dela kalkulatu baita.

4. Oharra: Donostiako Udalaren diru laguntzak.

AAzaroaren 21eko 1463/2007 Errege Dekretuak, Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Legearen Erregelamendua onartzen duenak, bere 4.2 artikuluan jasotzen du batez ere merkatuaren arabeko diru sarrerekin finantzatzen diren enpresa erakunde publikoek oreka finantzarioaren egoeran onartu beharko dituztela beren aurrekontuak.

Proposamen gisa onartzeko aurkezten den 2017ko Galera eta Irabazien Aurreikuspen Kontuaren arabera, ustiapen gastuekin alderatuz (pertsonalaren gastuak, ustiapeneko beste gastu batzuk, eta higiezinaren amortizazio gastuak), alokairuagatik diru-sarrerek adierazten duten portzentaia %85ekoa da.

Kontuan izanik Donostiako Etxegintza batez ere merkatuaren arabeko diru-sarrerekin finantzatzen dela, bere Galera eta Irabazien Aurreikuspen Kontua oreka finantzarioan egon dadin beharrezkoa du Donostiako Udalaren 128.690,77 euroko diru-laguntza jasotzea, Udalak dituen babes publikoko etxebizitzaren kudeaketan aplikatzen den errenta sozialen politika finantzatzeko.

Bestalde, indarrean dauden maileguen amortizazioaren kuotak ordaindu ahal izateko, Entitateak Donostiako udalaren kapitalaren diru-laguntza izango du, 1.350.000,00 eurokoa.

Era berean, Donostiako Udalak partida bat izendatu beharko du bere aurrekontuetan, udal mugarte osoko egoitza eraikinak eta etxebizitzak birgaitzera bideratzeko dagokion ordenantzen bitartez, zeinaren kudeaketa Erakundearekin adostu dena.

11. taula: Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren programa osagaiak

Programa osagaiak	Zenbatekoa	%
Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa	28.948.822,47	100,00
Guztira	28.948.822,47	100,00



12. taula: Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren diru-sarrerren ekonomi balioztapena

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Zuzeneko zergak	0,00	0,00
2	Zeharkako zergak	0,00	0,00
3	Tasak eta bestelako zergak	1.506.000,00	5,20
4	Transferentzia arruntak	731.302,36	2,53
5	Ondare-sarrerak	5.317.000,00	18,37
6	Inbertsio errealeen besterenganaketa	1.000.000,00	3,45
7	Kapital-transferentziak	4.270.000,00	14,75
8	Finantza-aktiboak	1.299.670,11	4,49
9	Finantza-pasiboak	14.824.850,00	51,21
Guztira		28.948.822,47	100,00

13. taula: Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren gastuen ekonomi balioztapena

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal-gastuak	1.397.063,34	4,83
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	3.010.831,17	10,40
3	Finantza-gastuak	1.243.407,85	4,30
4	Transferentzia arruntak	0,00	0,00
6	Inbertsio errealak	18.744.850,00	64,75
7	Kapital-transferentziak	0,00	0,00
8	Finantza-aktiboak	0,00	0,00
9	Finantza-pasiboak	4.552.670,11	15,73
Guztira		28.948.822,47	100,00



14. taula: Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren. Orokorra. Gastuen azalpena

Kontusaila	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
1. kapitulua		
130.01	Langileen ordainsariak	1.068.965,22
160.01	Gizarte-kargak	328.098,12
1. kapituluaren guztizkoa		1.397.063,34
2. kapitulua		
211.01	Eraikinen konponketa, mantentzea eta artapena	1.038.536,90
221.01	Hornidurak	689.000,00
224.01	Aseguru-primak	150.000,00
225.01	Tributuak	515.700,00
	Garbiketa lanak	164.000,00
	Komunitate gastuak	49.000,00
226.99	Beste zerbitzuak	264.594,27
227.15	Zerbitzu profesional independenteak	140.000,00
2. kapituluaren guztizkoa		3.010.831,17
3. kapitulua		
332.01	Epe luzeko zorren interesak	1.243.407,85
3. kapituluaren guztizkoa		1.243.407,85
6. kapitulua		
682.01	Eraikinak eta bestelako eraikuntzak	16.524.850,00
682.01.02	Adinakoentzako 55 apartamentu Intxaurren alocatzeko	2.713.600,00
682.01.03	48 babes ofizialeko etxebizitza Berio-Goienetxen alocatzeko	2.146.400,00
682.01.04	162 babes ofizialeko etxebizitza Txomin-Enean alocatzeko (1. Zatia A)	9.525.600,00
682.01.06	37 babes ofizialeko etxebizitza alocatzeko. Jolastokieta	79.250,00
682.01.07	Ulia (70 inguru zuzkiduretako bizileku)	2.060.000,00
682.01.08	Lehentasunezko udal eskuratzearen eskubidearen gauzatzea	1.000.000,00
	Energia-eraginkortasuna hobetzeko neurriak alokatutako udal etxebizitzetan	900.000,00
	Irisgarritasuna hobetzeko neurriak alokatutako udal etxebizitzetan	320.000,00
6. kapituluaren guztizkoa		18.744.850,00
9. kapitulua		
932.02	Maileguen amortizazioa	4.552.670,11
9. kapituluaren guztizkoa		4.552.670,11
Guztira		28.948.822,47

15. taula: Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren. Orokorra. Diru-sarreraren azalpena

Kontusaila	Diru-sarreraren azalpena	Zenbatekoa
3. kapitulua		
I 390.01	Hainbat diru-sarrera	1.506.000,00
3. kapituluaren guztizkoa		1.506.000,00
4. kapitulua		
I 410.01	Maileguren korrituei, Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntza	602.611,59
I 430.01	Donostiako Udalak emandako diru-ekarpina (gastu arrunta)	128.690,77
4. kapituluaren guztizkoa		731.302,36
5. kapitulua		
I 540.01	Etxebizitza eta aparkalekuen alokairua	5.317.000,00
5. kapituluaren guztizkoa		5.317.000,00
6. kapitulua		
	Lehetasunezko udal eskuratzearen eskubidearen salmenta	1.000.000,00
6. kapituluaren guztizkoa		1.000.000,00
7. kapitulua		
I 710.01.01	Adinekoentzako 55 apartamentu Intxaurren. Alokairu babestuari Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntzak	440.000,00
I 710.01.02	Uliako mintegiak (70 inguru zuzkiduretako bizileku) . Alokairu babestuari Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntza	560.000,00
I 710.01.03	48 babes ofizialeko etxebizitza Berio-Goienetxen alokatzeko. Alokairu babestuari Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntza	1.920.000,00
	Donostiako Udalak emandako diru-ekarpina (kapital gastua)	1.350.000,00
7. kapituluaren guztizkoa		4.270.000,00
8. kapitulua		
I 880.01	Defizit edo superabitaren ondorioz aurrekontua orekatzeko eragiketak	1.299.670,11
8. kapituluaren guztizkoa		1.299.670,11
9. kapitulua		
I 932.02.01	Adinekoentzako 55 apartamentu Intxaurren. Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza duen mailegua	2.500.000,00
I 932.02.02	Uliako mintegiak (70 inguru zuzkiduretako bizileku). Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza duen mailegua	1.500.000,00
I 932.02.05	162 VPO en Txomini-Enea de alquiler (1ª Fase A). Préstamo subvencionado por el Gobierno Vasco	9.525.600,00
I 933.01	37 babes ofizialeko etxebizitza alokatzeko. Jolastokieta. Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza duen mailegua	79.250,00
	Jasotako epe luzerako maileguak (merkatua)	1.220.000,00
9. kapituluaren guztizkoa		14.824.850,00
Guztira		28.948.822,47

4. Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A.

2017. urtean, ekonomikoki azken urteotako emaitza positiboak mantentzea espero dugu nahiz eta hauek asko murriztu. Errausketekin alderatuz, lurperaketen jaitsiera sumatu daiteke (2016rako 575 gorpuen lurperaketa espero dira, 576 errausketa eta 213 errautsen lurperaketa).

Gainontzean, neurrizko aurrekontua egin dugu, ikuspegiak errealistak dira eta, zerbitzuaren kalitatea mantentzeko asmoz, beharrezkotzat jotzen diren gutxieneko hobekuntzak gauzatuko dira hilerrietan. Beste urteetan bezala, sozietateak, hala ere, ez du galerarik izango gastu hauen ondorioz.

9. urtez, fiskal-ordenantzaren prezioak ez dira aldatzen.

2017an 250.000 euroko dibidendoa banatzea espero da.

Onbideratutako egitura ikus daiteke balantzean: laneko kapital positiboa eta emaitza positiboak ere, bai 2016an eta 2017an.

Zaintza-lanei dagokienez, gure kasa moldatzen saiatzen gara ahalik eta gehien.

Diru-Sarrerak

Errausketak eta lurperaketak gutxi gorabehera diru-sarreraren %50 dira. Urtero hilobien titularrek ordaintzen duten hilerrien mantenimendu tasa %30 inguru eta hilobien garbiketa zerbitzuak, marmoldegi lanak, hilobien alokairuak eta bestelako zerbitzuak beste %20a.

Gastuak

Gastuen kapitulari dagokionez 2017an Polloen diren asfaltatu gabeko kaleen asfaltatzearekin bukatzea espero da, horretarako 100.000 euro aurrekontuan sarturik. Lanak 2016an hasi ziren baina Polloen diren babestutako elementuak zehazteko Plan Berezia idatzita izan arte, obra atzeratu da.

Gauzak horrela, Plana prestatuko dugu eta lanak jarraitzea espero dugu. Hilobien titularren eskaera da eta irisgarritasuna hobetuko dugu.

Errausketen igoera ez da gauza berria eta errautsak nonbaiten utzi behar direla ere ez. Hilerrian errautsen lorategi bat izateko aukera aztertzen jarraitzen dugu. Hasierako aurrekontua motz geratu zaigu eta bizpahiru enpresei proiektu bat aurkeztea eskatzea pentsatzen ari gara. Gure ustez, eskaini beharreko zerbitzua dugu hau errautsak hirian edo hiriaren inguruan ez sakabanatzeko.

Garratzintsu diren beste gastuen artean, ohikoak diren marmoldegi lanak, hilobien eta bulegoen garbiketak eta lorategi lanak ditugu.

2016an ere webgunearen berrikuntza aurkeztu dugu, bertan zenbait zerbitzu berri izanik, hala nola, hilobi eta hildakoen kokapena edo bere balio artistiko edota kulturalarengatik garrantzia duten lekuen bisita-gida. Momentuz bakarrik webgunean dugu baina etorkizunean, 2017an, fisikoki aurkeztea gustatuko litzaiguke. Hortaz aparte, badugu eguneko hilerrian eta errausketa labean diren zerbitzuak ikustea ere.

Pertsonalari dagokionez, azken urteotan pertsonalaren murrizketa izan da. Egoera honetan, 2017rako 6 hilabeterako beste langile baten kontratazioa aurreikusi da oporrak egiteko eta zerbitzuaren kalitatea mantentzearen.

Errausketei buruz, gasen emisioen araudi berria dela eta, 2019rako filtro berriak jarri beharko ditugu. Filtroak bakarrik 250.000 euro izango lirateke eta 20 urteko labea izanik, aldatzeko momentua iritsi zaigula uste dugu. Jadanik, 5 aurrekontu ditugu, eta bai pleguak prestatzeko, bai eskaintzak aztertzeko kanpoko laguntza beharko dugu.

16. taula: Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A.ren programa osagaiak

Programa osagaiak	Zenbatekoa	%
Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A.	1.743.140,18	100,00
Guztira	1.743.140,18	100,00

17. taula: Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A.ren diru-sarreraren ekonomi balioztapena

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Zuzeneko zergak	0,00	0,00
2	Zeharkako zergak	0,00	0,00
3	Tasak eta bestelako zergak	1.410.918,00	80,94
4	Transferentzia arruntak	0,00	0,00
5	Ondare-sarrerak	1.500,00	0,09
6	Inbertsio errealeen besterenganaketa	0,00	0,00
7	Kapital-transferentziak	0,00	0,00
8	Finantza-aktiboak	330.722,18	18,97
9	Finantza-pasiboak	0,00	0,00
Guztira		1.743.140,18	100,00

18. taula: Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A.ren gastuen ekonomi balioztapena

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal-gastuak	533.618,56	30,61
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	709.521,62	40,70
3	Finantza-gastuak	0,00	0,00
4	Transferentzia arruntak	0,00	0,00
6	Inbertsio errealak	500.000,00	28,68
7	Kapital-transferentziak	0,00	0,00
8	Finantza-aktiboak	0,00	0,00
9	Finantza-pasiboak	0,00	0,00
Guztira		1.743.140,18	100,00

19. taula: Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A. Orokorra. Gastuen azalpena

Kontusaila	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
1. kapitulua		
130.01	Langileriaren gastuak	403.899,64
160.01	Gizarte-kargak	129.718,92
1. kapituluaren guztizkoa		533.618,56
2. kapitulua		
221.01	Hornidurak	7.500,00
201.01	Errentamenduak	14.586,00
211.01	Konponketak eta artapena	414.800,00
227.15	Kanpoko zerbitzuak	175.135,62
221.01	Hornidurak: ura, argi-indarra eta gasa	42.200,00
224.01	Aseguru primak	11.900,00
226.03	Publizitatea eta propaganda	2.300,00
225.01	Tributuak	250,00
227.15	Zerbitzu profesional independenteak	40.850,00
2. kapituluaren guztizkoa		709.521,62
6. kapitulua		
622	Errausketa labe berria	500.000,00
6. kapituluaren guztizkoa		500.000,00
Guztira		1.743.140,18

20. taula: Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A. Orokorra. Diru-sarreraren azalpena

Kontusaila	Diru-sarreraren azalpena	Zenbatekoa
3. kapitulua		
I 310.03	Jarduerak burutzeagatiko prezio publikoak	1.403.918,00
I 300.01	Salmentak	7.000,00
3. kapituluaren guztizkoa		1.410.918,00
5. kapitulua		
I 560.01	Kontu korronteko interesak	1.500,00
5. kapituluaren guztizkoa		1.500,00
8. kapitulua		
880.01	Defizit edo superabitaren ondorioz aurrekontua orekatzeko eragiketarak	330.722,18
8. kapituluaren guztizkoa		330.722,18
Guztira		1.743.140,18

5. Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoa

Donostia Kultura Enpresa Publikoaren helburua da Udalak kultura eta jaien arloan dituen eskumenak aurrera eramatea, modu zuzen eta deszentralizatuan. Hortaz, erakundeari dagokio Donostiako Udalaren eskumenekoa den kultura arloaren plangintza, eratzea eta kudeaketa, bai eta jai eta jardueren sustapena eta antolakuntza ere (Donostia Kultura Estatutuak).

2017. urterako aurrekontuak Donostia Kultura etorkizunera gidatzeko ahlegin berezia dakar. Atzera begiratzeko ispiluak erakutsi digu urteetan egindako lana sendotu egin dela eta herritarrek estimazio altuan dutela; 2016ak era berean arrasto sakona utzi digu Europako Kultur Hiriburua izatearen ondorioz: mimo handiz sortutako ekimen, erakusketa, agerraldi, lan prozesu, programa eta era askotako harremanek beste eskenatoki batean jarri dute Donostia. Itsasargi bakoitzak etorkizunera egin du argi, herritarrengan ase beharrek kultur eskaera gehiago sortuz. Era berean kulturak, lehenaz gain, Donostiari nazioartean berealdiko ikusgarritasuna eman dio eta munduan seinalatua izateko pisuzko arrazoia eman dio: Donostia Kulturaren Hiria.

Argiek beti dituzte itzalak jakina baina hasitako bidea ezin da eten. Egindako lana ebaluatuz eta eskarmentutik ikasiz, hiritarrak kulturaren aberasten jarraitzea da Donostia Kulturaren zeregin nagusia, lurraldean itsasargi izanez eta munduan horrexegatik ezaguna izanez.

Donostia Kultura, 2016. urteak utziko duen ondarearen oinordeko nagusi ikusten dugu hiriko gainerako erakunde eta kultur eragileekin elkar lanean. Donostia Kulturak duen egiturari esker (izaera publikoa, auzoetan errotua, disziplina artean orekatua, parte hartzailea, urteetako esperientzia duena) herritarren kultur prestakuntza bultzatzea eta festarako, aisirako bidea ematea oso natural egingo du.

2016ko ondarea du xede nagusi alde batetik aurrekontu honek. Bestetik zerbitzuetan (baita ekimen eta jaialdietan ere) bizi izan dugun krisi ekonomikoagatik 2011a ezker hartu behar izan diren neurri murriztaileak zuzentzeko helburua ere. Bi aldagai nagusi horiek (2016ko ONDAREA eta KRISIAREN ERAGINA) eta etorkizunera begira ditugun erronkak (SORKUNTZA, BERRIKUNTZA eta TEKNOLOGIA BERRIAK) aintzat hartuta osatu ditugu aurrekontua. Banaketa sailez-sail egin dago eta Donostia Kulturaren apustu nagusiak kontutan hartuta: pertsonak, baliabideak, eskaintza eta gizarteratzea.

Donostia Kulturaren 2017ko gastu aurrekontua 27.342.399 eurokoa da, 2016koarekiko % 1,48ko igoera suposatzen duelarik. Gastua jarraian azaltzen den moduan banatu da: 11.868.272 euro pertsonal gasturako dira, 14.882.635 euro gastu arrunterako eta 591.492 euro irabazi asmorik gabeko elkarte zein jaialdien antolaketarako emandako dirulaguntzetarako.

Kanpoko sarrerak 5.648.272 eurokoak dira eta 2016koekin alderatuta % 5,23 jaitsi dira, hein handi batean Donostia 2016 Fundazioari emandako zerbitzuen beherapenean oinarritzen delarik jaitsiera hori. Udalaren ekarpenari dagokionez, 21.694.127 eurokoa da, 2016koa baino %3,39 altuagoa.

Erakundearen autofinantziazio maila %20,66koa da.

5.1. Kultur Ekintza: Olatu Talka

2016 urteko eskarmentutik datorren Jaialdia. Kultur-Etxetan urte osoan landutako herritarren proposamenak biltzen ditu: Donostia Kulturaren izaera deszentralizatuaren bete-betean bat datorren ekimena eta herritarren parte hartzea bultzatzen duena. 2017ko edizioan gainera Kultur-Etxe guztietan eskaintzen diren ikastaroekin erabat lotuta antolatuko da.

5.2. Udal-liburutegi zerbitzua

Udal-Liburutegi sarea, Kultur-Etxeekin batera Donostia Kulturaren muina da. Oinarrizko zerbitzua hiri guztian zehar lan egiten duena. Hiriaren zainetan kultura zabaltzeko tresna. Liburutegi sarea behar bezala hornitzea ezinbestekoa da (17 liburutegi eta jarduera aretoa). Krisiak atal honetan jaitsiera nabarmena ekarri zuen eta hori zuzentze aldera liburuen (tartean CD, bideo, e.a.) erosketarako igoera nabarmena egin dugu.

- » Lehenaz gain 2016ak hasitako ekimen berriei eutsi egingo diegu irakurzaletasuna bultzatzeko asmoarekin: ibilbide literarioak, haur eta gazte literaturan wikiproiektua e.a.
- » Era berean aro digitalean Donostia Wikipedia proiektuarekin (Donostiako ezagutza enziklopedia aske eta kolaboratiboan jartzea) jarraitzea ezinbesteko jo dugu

5.3. Festak

- » Zenbat eta festa parte hartzailegoak egin orduan eta behar gehiago: horren adibide besteak beste, danborrada. Geroz eta danborrada gehiago izateak diru-laguntzak hazi beharra ekarri du elkarteak oso laguntza eskasekin ez badira utzi nahi behintzat.
- » Aste Nagusia izan da krisia medio aurrekontuz justuago ibili dena eta hori zuzentzeko bidea jarri dugu. Horrekin batera baita Donostiako udako festa erdiguneaz gain beste auzo batzuetara zabaltzeko modua ere.
